

# TESEO ETA MINOTAUROA MOSAIKOAK NAFARROAKO MUSEOA



Bakoren garaipenearen mosaikoa K.o. I.-II. mendeak  
Andelostik ekarritako zoru baten erdiko apaingarria

## BISITARAKO JARRAIBIDEAK

Iruñean, 20..... (e)ko .....aren .....(e)an

.....

.....

Irakasle agurgarria:

Aditzera ematen dizugu "Teseo eta Minotauroa" jarduera hitzartua duzula Nafarroako Museoan, ondoko hauetan:

Data:..... Ikasle kop. .... Ordua: ..... Euskaraz.

Data:..... Ikasle kop. .... Ordua: ..... Euskaraz.

Data:..... Ikasle kop. .... Ordua: ..... Euskaraz.

Data:..... Ikasle kop. .... Ordua: ..... Euskaraz.

Mesedez, **esandako orduan** etorri. Jarduera ordu eta erdikoa da, gutxi gorabehera.

Irakasleak **taldearekin** egon behar du, **isilik**, bisitan.

Zure taldearekin etortzen zarenean, bisita berresteko orria ekarri.

Edozein kontsulta egin nahi baduzu, deitu 848 426493 telefonora.

Sinadura: ANA REDÍN  
DIDAKTIKA ARLOA

**MUS**<sup>NAFARROAKO</sup>**OA**

## BISITA

### BISITAREN AURRETIK. IKASGELAN

Ziur aski, ikasleek lehen aldia dute museo batean. Horregatik da garrantzitsua motibatuak etortzea, ongi pasatzea Nafarroako Museoan.

Komenigarria da umeeek jakitea horrelako toki publikoetan zer jokabide izan:

- Ahots-tonu normalaz mintza daitezke, zalapartarik atera gabe.
- Piezetara hurbildu daitezke, baina ukitu gabe.
- Piezetara hurbildu nahi badute, txandaka egin, denek aukera izan dezaten.
- Seinalatu dezakete, baina ez erabili horretarako arkatza edo boligrafoa.
- Ezin da txiklerik mastekatu, ezta ogitartekorik eta abarrik jan ere.
- Ez jarri hormen kontra. Geletan badira eserlekuak atsedean hartzeko eta idazteko. Denontzako tokirik ez bada, lurrean eseri, beste bisitariei bidea ez galarazteko moduan.

### IRISTEAN. MUSEOKO HARRERA-LEKUAN

Ikasleek bizkar zorroak eta berokiak jantzitegian utziko dituzte.

### BISITA. LEHEN SOLAIRUAN

Bertan monitorea egonen da zain eta ikasleei adieraziko die zer den museo bat eta zer dagoen Nafarroako Museoan. “Bakoren garaipena”, “Teseo eta Minotauroa” eta “Kretako harresiak” izeneko mosaiko erromatarrak ikusiko dituzte eta azken horri buruzko historia kontatuko die monitorea.

Azkenik, “Teseo eta Minotauroa” mosaikoa osatuko dute ikasleek marrazki batean. Iraupena, gutxi gorabehera: 60 minutu.

#### Mosaikoak ikusteko ibilaldia

Jarduera osatzeko ibilaldi bat egin dezakezue, mosaiko erromatarrak ikusteko, zuen gisa. Lekuak:

- Lehen solairuko hormak.
- Museoko elizan, kanpoko hormak: sarrerako kristaletatik ikusten dira
- Kanpoko patioko zorua (kanpora atera daitezke mosaikoak ikustera).
- Sotoko lurzorua (gela honetara joateko eskailerak iragan behar dira).
- Aldi baterako erakusketen gela, komunen ondoan.

## **IRTEERA. LEHEN SOLAIRUAN**

Jarduera bukaturik, ikasleak irakaslearekin aterako dira. Bera arduratuko da haurrek jantzitegian utzitakoa hartzeaz.

### **HELBURU DIDAKTIKOAK**

Ikasleak ondoko helburuez jabetzea:

- \_ Artelanak eta arkeologia ezagutzeko interesa eta ikusteko gogoia piztea.
- \_ Astialdia museoak, monumentuak eta erakusketak ikustera bideratzea.
- \_ Museoetan eta arte erakusketetan nola jokatu jakin eta arauak errespetatzea.
- \_ Gauzei erreparatzeko joera piztea.
- \_ Ulertzeko eta adierazteko gaitasuna lantzea, alor hauetan: plastikan, ikustekoan, ahozkoan.
- \_ Norberarenak bezalakoak ez diren adierazpen plastikoak errespetatu eta estimatzea.
- \_ Ondarea errespetatzea eta haren balioaz jabetzea.

### **BISITALDIAN LANDUKO DIREN EDUKIAK**

Museoak

ICOM (International Council Of Museums) erakundearen arabera, museoak erakunde iraunkorrak dira, jendaurrekoak, irabazi asmorik gabeak. Balio arkeologiko, historiko, artistiko, etnologiko, zientifiko, tekniko edo bestelakoa duten multzo eta bildumak eskuratu, kontserbatu, ordenatu, ikertu, adierazi eta erakusten dituzte, aztertu, hezi eta ikusteko.

Erromanizazioa

Erromatarrek, Iberiar Penintsulan hedatzean, Ebro ibaiaren ibarrera ailegatu ziren K.a. II. mendearen hasieran. Egun Nafarroa den tokian baskoiak eta zeltiberiarrak bizi ziren.

Bertako jendearen bizimodua aldatuz joan zen "erromanizazioa" deitutako prozesuaren bidez. Hala ere, ez zituzten ohitura guztiak aldatu. Kultura erromatarra gailendu zen, baina bertako elementu batzuek ere jarraitu zuten.

Erromak, konkistaren ondoren, bere gizarte antolamendua eskaini zien lurralde berriei, ez indarrez, bertako eliteak integratuz baizik, haiei latina eta erromatarren



bizimodua irakatsiz: antolamendu politikoa, legeria, elikadura, moda, arkitektura, hirigintza, galtzadak, ingeniari-tza, mehategiak, nekazaritza eta abeltzaintza, etab.

Aldaketa orokorra da, hasi erlijio sinkretismotik eta buka politikaren eta gizartearen antolamenduan. Horrek aldaketak dakartza gustuetan eta eguneroko jardunean; eraikin publiko eta pribatu berriak hirietan, gastronomia, baxera, jantziak, apaingarriak, etab. Alfabeto latindarra, guk erabiltzen duguna, orduan hasi ziren erabiltzen. Idazten ditugun zenbakiak arabiarrek ekarri zituzten Indiatik.

### Mosaikoa

Erromatarrekin herriak berrantolatu, hazi eta toki egokiz hornitu ziren: elkartzeko, merkataritzako, higienarako, atsedeen hartzeko, erlijiorako eta ikuskizunetarako lekuak, hala nola, plazak, tenpluak, ubideak hirietara (etxe, iturri, terma eta estoldetara) ura eramateko. Eta bizien hirietatik at, hilenak (nekropoliak) jasotzen dira.



**Teseoren eta Minotauroaren mosaikoa**  
Iruñean aurkitutako zoru baten erdiko apaingarria. Teseo eta Minotauroa borrokan dabilta, Kretako labirintoaren erdian.

Baziren 3 edo 4 pisuko etxeak nahiz familia bakarrarentzat zirenak. Azken horiek oso handiak ziren, batez ere hirietatik kanpo

bazeuden (villak). Vilek patioa zuten barrenean (erreparatu Nafarroako Museoko patioari) eta horren inguruan gelak, non lurzorua mosaikoz apaintzen baitzen. Museoko hormetan mosaiko zahar zenbait jarri dira (gelak handiak baitziren gure etxeetakoekin konparatuz gero). Batzuek marrazki geometrikoak dituzte (zirkuluak, karratuak, triangeluak, korapiloak...) eta beste batzuek landareak, animaliak eta pertsonak.

Zenbait etxetan ur korrontea, berokuntzako sistema eta bainuak (termak) zituzten. Batzuk bainu publikoak ziren, hau da, jende guztia joan zitekeen, Gazteluko plazakoak, konparazio batera. Bertan gimnasioa, sauna (sudarium) eta igerilekuak zeuden. Lehenbizi ur beroko igerilekura sartzen ziren (caldarium), gero ur epelekora (tepidarium) eta, azkenik, ur hotzekora (frigidarium), atsedeen hartuta eta bizi-bizi ateratzeko. Kaka edo pixa egitera gela berezi batzuetara joaten ziren, komun sail bat, bata bestearen ondoan, zeuden lekura.



Kretako harresien mosaikoa, segur aski Teseo eta Minotauroren borrokako labirintoaren inguruan zegoena. Curia kalean agertu zen eta agian terma edo bainu erromatar batzuetakoa zen.

Nekeza zen mosaiko bat egitea. *Officina* izeneko lantaldeak osatzen zuen; bakoitzak bere lana zuen:

- *Pictor imaginarius*: mosaikoaren marrazkiaren (diseinuaren) arduraduna.
- *Lapidarius*: teselak prestatzen zituen. Burdinazko mailu batekin ingude gainean joz hausten zituen.
- *Pictor Parietarius*: marrazkia zoruan egiten zuen.
- *Calcis coctor*: karearen prestatzailea.
- *Tesellator*: karea gogortu baino lehen teselak bertan itsasten zituen, markatutako marrazkiari jarraikiz.

Lurzoru lau eta lehorraren gainean harrizko hiru geruza ezartzen ziren. Gero zementuzko azken geruza bota, marrazkia egin lehortu baino lehen, eta teselak jartzen ziren, markatutako marrazkiari jarraituz.

### OPUS TESSELATUM

*Tesselae*: koloretako harri kubikoak

